



Ekintzaileen eta ekintzailetzaren inguruko trebakuntza, ebaluazioa, balorizazioa eta zabalkunde soziala helburu dituzten jarduerak diruz laguntzeko programa

Urtea :2017 | Ekonomia Sustapena

Deskribapena

Honako arlo hauekin lotutako jarduerak egiten laguntzea: Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien arloko trebakuntza; ekintzailetza bultzatzeko ekosistema garatzea; ekintzaileen eta ekintzailetzaren ebaluazioa, balorizazioa eta zabaldunke soziala egitea, ekimen pertsonalaren nahiz barne ekintzailetza korporatiboaren ondorio izan.

Entitate onuradunak

Onuradun izango dira Gipuzkoako berrikuntza enpresen zentroak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren funts publikoekin finantzatutako hezkuntza arautuko zentroak, eta ekintzailetzaren ebaluazioaren eta/edo zabalkunde eta balorizazio sozialaren arloan esperientzia kontrastatua duten entitate eta enpresak.

Diru laguntzaren xede diren jarduerak

- Hezkuntza komunitatean enpresa espirtua sustatuko duten esperientziak eta Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien arloko trebakuntza.
- Ekintzailetza bultzatzeko ekosistemaren barruan, eragileak eta haien arteko harremanak indartzera bideratutako ekimenak.
- Ekintzaileen eta ekintzailetzaren ebaluazioa, balorizazioa eta zabalkunde soziala, pertsonaren ekimenez edo korporazioaren barne ekintzailetzaren bidez.

Diruz lagundu daitezkeen kostuak

Entitate eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu xehatu eta zehatzean jasota dauden eta zalantzarik gabe horren garapenarekin lotuta dauden gastuak.

Diru laguntzen zenbatekoak

Diru laguntzen zenbatekoa kostu hautagarrien % 100 izatera irits daiteke.

Emateko prozedura

Diru laguntzak, deialdi eta hautapen-prozedura bakarreko elkarren lehiaren bidez emango dira.

Bateragarritasuna ala bateraezintasuna

Diru laguntzak hauek ez dira bateragarri izango Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Aldiz, bateragarri izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada eta eragotzi gabe gai horren inguruan beste laguntza batzuen araudiak esaten duena.



Oinarri hauen arabera diruz lagundutako proiektua garatzeko diru laguntza bat eskatzen edo lortzen duen entitate onuradunak horren berri eman beharko dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurumeneko eta Lurralde Oreka Departamentuari.

Betetzeko epeak

- Eskaerak aurkezteko epea: **2017ko uztailaren 28an, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira.**
- Proiektuen exekuzio data: **2018ko ekainaren 5ean amaituko da.**

Araudi aplikagarria

Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programa

V. ERANSKINA Ekintzaileen eta ekintzailetzaren inguruko trebakuntza, ebaluazioa, balorizazioa eta zabalkunde soziala helburu dituzten jarduerak diruz laguntzeko oinarri bereziak.

Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak → <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzailetasuna/balorizazioa>
- Diru laguntzak kudeatzeko aplikatiboa → <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu

JAKINTZAREN ETA ENPRESA JARDUERAREN SUSTAPEN zerbitzua

Telefonoak:

Kudeaketa tekniko: 943-112287

Kudeaketa Administrazioa: 943- 112218

sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus